

## **BILBAO BIZKAIAN TURISMOAN KONTSUMOA ZUZENEAN SUSTATZEKO BONUEN PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**

---

### **1.- ZIOEN AZALPENA**

Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbao Bizkaiko Turismo Sektorea Suspertzeko Plana egin zuten COVID-19aren ondorioei aurre egiteko. Plan hori Bilbao Bizkaia Action Groupek onartu zuen 2020ko maiatzaren 8an. Turismo-jardueraren gaineko lankidetzak publiko-pribatua sustatzeko foroa da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 24ko 106/2018 Foru Dekretuaren bidez berregituratu eta arautzen da.

Plan horretan ageri den helburuetako bat da Covid-19ak turismo-industrian dituen ondorioak arintzea. Horretarako, 2. atalean zehazten da lan-ildo bat, eta, haren barnean, turismo-eskaera sustatzen da turismoko planen, jardueren eta bonuen bitartez.

Horren ondorioz, turismo-sektorearen jarduera suspertzeko eta dinamizatzeke Bilbao Bizkaian, turismo-helmuga gisa, lankidetzak-hitzarmen bat sinatzea erabaki da Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean. Hitzarmen horren helburua da jarduketa hori koordinatzea, Bilboko hirian eta Bizkaiko lurralde osoan turismo-sektoreko zerbitzuen kontsumoa eta eskaera berreskuratzeko, Bilbao Bizkaia Turismo Bonuen bidez.

Bilbao Ekintza, EPEL (aurrerantzean, Bilbao Ekintza) Bilborako ekonomia- eta gizarte-jarduera sortzea sustatzen duen udal-erakundea da; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, eta laneratzeko aukerak hobetzen ditu. Bere helburuen artean dago, halaber, hiria kultura- eta aisialdi-helmuga gisa nazioarteko turismoan kokatzea eta sustatzea, hirian aberastasuna dinamizatzen eta sortzen lagunduz.

COVID-19k sortutako osasun-krisiak, 2020ko ekitaldian, aurretik genuenaz besteko errealitate bat erakutsi zuen, eta geldialdi bat eragin zuen jarduera ekonomikoan. Horren ondorioz, jarduera koordinatua egin behar izan zen, osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi horren ondorioei aurre egiteko.

Bilboko Udalak, egoera hori ikusirik, 2020ko maiatzaren 8an BILBAO AURRERA Plana onartu zuen, Bilboko Gizarte Kohesiorako, Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko eta Kulturarako Neurrien Plana. 15 milioi euroko aurrekontua du. Pandemia-egoerak bere horretan jarraitzen duenez, eta horrek tokiko gizarte- eta ekonomia-sarean

dituen ondorio negatiboak areagotu egin direnez, AURRERA 2021 PLAN berri bat egin da, udal-taldeek urtarrilaren 29an aho batez izenpetua. Ekonomiaren eta enpleguaren esparruko neurrien barruan, BILBAO AURRERA Planak Bilbon zuzenean kontsumoa sustatzeko programa bat jasotzen du BILBOKO BONUen bitartez. Hain zuzen ere, eragin handiena izan dezaketen sektoreetan aplikatu nahi du.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila herritarrei eta Bizkaiko ekonomia-sareari zerbitzua emateko tresna bat da, eraldaketa-prozesu bat sustatzeko, xede honekin: Bizkaiak lurralde berritzaile gisa duen kokapena indartzea, talentu erakargarri, konektatu eta orekatuarekin; horrez gain, bermatzea biharko Bizkaiaren ezaugarria nagusia kalitatezko enplegua sortzeko eta mantentzeko gaitasuna izan dadila, eta Europako abangoardia ekonomiko eta sozialari eusten diola. Ildo horretan, Ekonomia Sustatzeko Saila lanean ari da honako hauek indartzeko: Bizkaiaren kanpo-irudia, turismo-estrategiaren garapena, helmugaren kokapen-plana eta sektorearen dinamizazioa lurraldean.

COVID-19ak sortutako krisia dela-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia aurrera! lurraldea suspertzeko premiazko plana prestatu zuen normaltasuna ahalik eta bizkorren lortzen laguntzeko eta sustatzeko. Bizkaia aurrera! planak 12 neurri ekonomiko biltzen ditu, pertsona, enpresa eta sektore horiei guztiei une latz hau gainditzeko eta jarduera berreskuratzen premiaz laguntzeko. Zehazki, 3. puntuan, jarduera-ildo bat ezartzen du, eta "turismo- eta ostalaritza-establezimenduetan (hotelak, nekazaritza-turismoko establezimenduak, landetxeak, xarma duten hotelak, aterpetxeak...) kontsumoa sustatzeko bonu-programa" batean oinarritzen da.

Azaldutakoari jarraikiz, Bilbao Ekintza EPELen Administrazio Kontseiluak, 2021eko uztailaren 15eko bilkuran, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Programaren Jarraipen Batzordean aldeztu aurretik adostuta, "BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK" erosketan bonuen sistema arautzea helburu duen programa hau onartu du Bilboko eta Bizkaiko Lurralde Historikoko turismo-jarduera sustatzen laguntzeko.

## **2.- PROGRAMAREN XEDEA ETA HELBURUAK**

Oinarri arautzaile hauen helburua da "BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK" bonuen programa arautzea, herritarrek Bilboko eta Bizkaiko turismo-sektoreko

establezimenduetan eros dezaten bultzatzeko, eta, horri esker, Bizkaiko Lurralde Historikoko turismo-jarduera suspertzen lagunduko da.

Hala, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, programaren bitartez, Bilbon eta Bizkaiko Lurralde Historikoan zuzenean kontsumoa sustatu nahi dute pandemiagatik kaltetuen izan den sektoreetako batean (turismoan) enplegua eta ekonomia suspertzen laguntzeko eta Bilbao Bizkaia helmuga erakargarri eta dinamiko gisa kokatzeko.

### **3.- PERTSONA ONURADUNAK**

Programa honen onuradunak izango dira Bilboko Udalak Bilbao Ekintzaren bidez salgai jarriko dituen bonuetako bat edo batzuk ezarritako bitarteko eta bideen bidez eskuratzen duten 18 urtetik gorako pertsona fisikoak.

Bonuak banatuko dira NAN edo AIZ zenbaki bati lotuta; zenbaki bakoitzarekin, gehienez 800 euroko balio faziala duten bonuak eskuratu ahalko dira.

Bonuak erosten dituztenek hurrengo atalean adierazitako zenbatekoa ordainduko dute, eta itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izango da Bilbao Ekintzak zein Bizkaiko Foru Aldundiak egindako ekarpena.

Herritarrek ordaindutako zenbatekoaren eta erakundeek egindako ekarpenaren baturak zehaztuko du bonuaren balio faziala (balio osoa).

### **4.- DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK ETA BONU-MOTAK**

Bilbon eta Bizkaian kontsumoa zuzenean sustatzeko programak (BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK) hiru bonu-mota ditu, aurrerago adierazten diren zenbatekoetan.

- **1. MOTA** Ostatuertarako turismo-bonuak
  - **1.A** 200 plaza baino gehiagoko ostatuak
  - **1.B** 101 eta 200 plaza arteko ostatuak
  - **1.C** 50 eta 100 plaza arteko ostatuak
  - **1.D** 50 plaza baino gutxiagoko ostatuak
- **2. MOTA** Turismo-intereseko jardueretarako turismo-bonua
- **3. MOTA** Bilbao-Bizkaian kontsumorako turismo-produktuak merkaturatzeko

agentzia hartzaileetarako turismo-bonua

Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira bonuen modalitateei aplikatzen zaizkien hobariak, honako hauen arabera:

BONU-MOTAK	BONUAREN PREZIOA	ADMINISTRAZIOAREN EKARPENA	BONUAREN BALIO OSOA (FAZIALA)
<b>1. MOTA</b>	40,00 euro	40,00 euro	80,00 euro
<b>2. MOTA</b>	25,00 euro	25,00 euro	50,00 euro
<b>3. MOTA</b>	100,00 euro	100,00 euro	200,00 euro

## 5. FINANTZAKETA

Bilboko Udalak bonuak finantzatzeko duen gehieneko kreditua 953.960,00 euro da, Bilborako, eta 953.960,00 euro Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako kopurua, hiriburuaren eta lurraldearen gainerakoa egituratzen duten hiru ardatz edo eremuen artean banatzen dena, honako honen arabera:

### BILBOKO UDALAK BONUEI EGINDAKO EKARPENA

BONU-MOTAK	GEHIENEKO KREDITUA
<b>1. MOTA</b>	667.760,00 euro
<b>2. MOTA</b>	143.100,00 euro
<b>3. MOTA</b>	143.100.00 euro

Bilboko Udalak finantzatutako bonuetarako zehaztutako zenbatekoa atxikitako Bilboko establezimenduen kopuruaren arabera banatuko da, eta soilik horien artean, eta bonu-mota bakoitzeko honako kopuru hau banatuko da:

BONU-MOTAK	EHUNEKOAK	BONU-KOPURUA	
		<b>1.A</b>	8.567
		<b>1.B</b>	3.294

<b>1. MOTA</b>	% 70,00	<b>1.C</b>	2.338
		<b>1.D</b>	2.495
<b>2. MOTA</b>	% 15,00	5.724	
<b>3. MOTA</b>	% 15,00	1.431	

### **BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BONUEI EGINDAKO EKARPENA**

BONU-MOTAK	GEHIENEO KREDITUA
<b>1. MOTA</b>	667.760,00 euro
<b>2. MOTA</b>	143.100,00 euro
<b>3. MOTA</b>	143.100.00 euro

Bizkaiko Foru Aldundiak finantzaturako bonuetarako zehaztutako zenbatekoa Bizkaiko Lurralde Historikoan banatuko da, atal honetan aurreikusitako ardatzen edo eremuen irizpideari jarraituz, eta ardatz edo eremu bakoitzeko establezimenduen artean, banaketa honen arabera:

ARDATZAK/EREMUAK	UDALERRIAK	EHUNEKOAK ETA BONU-KOPURUA
------------------	------------	----------------------------

BILBO	Bilbo	<b>1. mota</b>	% 40	1.A	3.426
				1.B	1.317
				1.C	935
				1.D	998

KOSTALDEA	Bakio, Barrika, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ea, Elantxobe, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Getxo, Gorniz, Ibarrangelu, Ispaster, Lekeitio, Lemoiz, Mendexa, Mundaka, Murueta, Muskiz, Ondarroa, Plentzia, Portugaleta, Santurtzi, Sopela, Sukarrieta, Zierbena	<b>1. mota</b>	% 28,7	1.A	2.039
				1.B	390
				1.C	441
				1.D	1.913

MENDIALDEA/ BARNEALDEA	Abadiño, Ajangiz, Amorebieta-Etxano, Amoroto, Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Arratzu, Arrieta, Artea, Artzentaes, Atxondo, Aulesti, Balmaseda, Bedia, Berriz Dima, Durango, Elorrio, Ereño, Ermua, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Fruiz, Galdames, Gamiz-Fika, Garai, Gatika, Gizaburuaga, Gordexola, Güeñes, Igorre, Iurreta, Izurtza, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Kortezubi, Lanestosa, Laukiz, Lemoa, Mallabia, Markina-Xemein, Maruri-Jatabe, Mañaria, Mendata, Meñaka, Morgia, Mungia, Munitibar-Arbatzegi Gerrickaitz, Muxika, Nabarniz, Orozko, Otxandio, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Ubide, Ugao-Miraballes, Urduliz, Urduña/Orduña, Zaldibar, Zalla, Zeanuri, Zeberio, Ziortza-Bolibar.	1. mota	%16,8	1.A	0
				1.B	237
				1.C	537
				1.D	2.038
METROPOLIALDEA	Abanto Zierbena, Alonsotegi, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Berango, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Ortuella, Sestao, Sondika, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zamudio, Zaratamo	1. mota	% 14.5	1.A	756
				1.B	797
				1.C	310
				1.D	560

2. eta 3. motetarako ez da egongo banaketa geografikorik edo eskualdekorik, eta mota horretako bonuak Bizkaia osoan kontsumitu ahal izango dira (Bilbon barne), eremuen araberako irizpide espezifikorik gabe. 2. eta 3. motetarako taula honela geratzen da.

<b>2. MOTA</b>	% 15,00	5.724
<b>3. MOTA</b>	% 15,00	1.431

Nolanahi ere, Bilbao Ekintzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak izendatutako pertsonen osatutako Programaren Jarraipen Batzordeak proportzio hori aldatzea erabaki ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak daudenean eta hala egitea komeni denean.

## 6. PROGRAMAREN INDARRALDIA

Onuradunek programa hasten denetik 2021eko abenduaren 31ra erosi ahal izango dituzte bonuak, edo haiek agortu arte. Amaiera aldatu ahal izango da Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Programaren Jarraipen Batzordean alde aurretik adostuta, eta horren berri emango da egiten den hurrengo administrazio- kontseiluan.

Herritarrek bonuak erosi ahal izateko, kontuan hartu beharko dira, batetik, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz hartzen dituen berariazko prebentzio-neurriak, eta bestetik, programaren garapen egokia baldintzatu edo horrekin lortu nahi diren helburuak hobeto lortzea eragin dezakeen beste edozein inguruabar ere.

Bestalde, gastua 2022ko martxoaren 31rako egin beharko da, eta ez dira diruz lagunduko egun horretatik aurrera egindako erosketak. Datari dagokionez, fakturan/tiketean jasotakoa beteko da, eta ez da onartuko geroagoko fakturarik.

Hala ere, Bilbao Ekintzak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Programaren Jarraipen Batzordean aldeztu aurretik adostuta, eta behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak daudenean, programaren indarraldia luzatu ahal izango du, eta Bilbao Ekintzaren kasuan, bere Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez gauzatuko da.

## **7. ESTABLEZIMENDUAK ATXIKITZEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK:**

### **Atxikitako erakundeak**

Kanpaina honi atxikitako erakundetzat jo ahal izango da turismo-sektorearen barruan enpresa-jarduera duen pertsona fisiko edo juridiko oro, baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoan establezimendu ireki bat badu, eta gutxienez atal hauetakoren batean badago:

- Agiri honen I. eranskinean zerrendatutako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigraferen batean alta emanda egotea.
- Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan erregistratuta egotea, oinarri hauen II. eranskinean jasotako epigrafeetan.

Hainbat establezimendu dituen enpresa bat programari atxiki ahal izango zaio, establezimendu bakoitzerako bonuak eskatuz.

Atxikitze eskaerarekin batera, deialdi honen **III. eranskinean** zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Salbuespen gisa, aipatutako eranskinean adierazitako beste talde eta/edo epigrafe batzuetan dauden enpresek parte hartu ahal izango dute, baldin eta Bilbao Ekintzak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Programaren Jarraipen Batzordean aldeztu aurretik adostuta, haien ezaugarriak eta jarduera programa honen izaerarekin eta

helburuekin bat datozela uste badu.

Atxikitako erakundeek administrazio eta mota bakoitzeko bonuak eskuratu ahal izango dituzte, beren establezimenduen kokapenaren arabera.

Programa honi atxikitako erakundeak erakunde laguntzailatzat joko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera, eta arau horretan dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzat aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaie.

### **Kanpainan parte hartzeko prozedura.**

Kanpainan parte hartzeko, erakundeak edo establezimenduak atxikitzea eskatu beharko du. Eskabideak, inprimaki elektronikoaren ereduaren arabera, Bilbao Ekintzak horretarako garatutako plataforma teknologiko honen bidez aurkeztu beharko dira: [www.bonoturismobilbaobizkaia.eus](http://www.bonoturismobilbaobizkaia.eus).

Eskabide-orriak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat badu edo osagabeak badira, erakunde interesdunei hamar egun balioduneko epea emango zaie antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan akatsik egin ez badute, eskaeran atzera egin dutela iritziko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako eran emango den ebazpenaren ondoren.

Eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, bonuen kanpainan atxikitako erakunde gisa onartu edo baztertu dela jakinaraziko da, xede horretarako posta elektronikoaren bidez: [enpresak@bonoturismobilbaobizkaia.eus](mailto:enpresak@bonoturismobilbaobizkaia.eus)

Baimena eman duten beste kanpaina instituzional batzuetara atxikitako erakunde edo establezimenduak programa honetan sartuta daudela iritziko da, baldin eta programa honek ezarritako baldintzak onartzen badituzte eta deialdi honetan eskatutako dokumentazioa aurkezten badute; beraz, ez dute eskabidea aurkeztu beharrik izango, atal honetan adierazitako baldintzetan, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 53.1.d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

### **Kanpainan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea.**

Establezimenduak eta enpresak atxikitzeko epearen hasiera Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez zehaztuko da, Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostu ondoren Programaren Jarraipen Batzordean, zeina Bilbao



Ekintzaren webgunean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko baita. Atxikitze eskaerak aurkezteko epea zabalduko da programa hasten denetik 2021eko abenduaren 31ra, edo haiek agortu arte.

## **8. BONUEN EZAUGARRIAK ETA ERABILERA-BALDINTZAK**

### **Bonuak erostea:**

Herritarrek bonuak digitalki eskuratu ahalko dituzte Bilbao Ekintzak prestatutako web-plataformaren bidez. Bertara sartzeko esteka: [www.bonoturismobilbaobizkaia.eus](http://www.bonoturismobilbaobizkaia.eus).

Erosten diren unean ordaindu beharko dira bonuak, eta erosteko ordainketa-sistema kreditu- edo zordunketa-txartelaren eta/edo aipatutako erakundearen ordainketa-pasabidean onartutako beste edozein ordainketa-bide elektronikoren bidez egingo da.

Bonuak establezimendu/enpresa jakin baterako erosiko dira, plataforman jasota dauden programari atxikitako erakundearen artean.

Bonuak programa indarrean dagoen bitartean erosi ahal izango dira, baldin eta finantzatzeko kreditu nahikoa bada.

### **Bonuen trukea**

Kanpainari atxikitako entitateen establezimenduetan/enpresetan trukatu dira bonuak. Eguneratutako zerrenda webgunean argitaratuko da: [www.bonoturismobilbaobizkaia.eus](http://www.bonoturismobilbaobizkaia.eus)

Bonuak establezimenduan/enpresan trukatu beharko dira, eta hura erosi zen unean hautatua izan zen.

Erabiltzaileak bonuaren QR kodea aurkeztu beharko du, edo, hala badagokio, inprimatutako bonuak establezimenduan/enpresan entregatu.

Erosketa-tiketaren zenbatekoa bonuaren berdina edo handiagoa izan behar da, erosketa eta/edo kontsumitze-aldi bakoitzean oso-osorik agortzeko modukoa.

Edonola ere, ezin izango da dirua eskudirutan itzuli erosteko unean eta erositako produktua itzultzea erabakitzen bada ere.

Erosketaren tiket/faktura bakoitzeko, gehienez ere BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUen hiru ale erabili ahal izango dira.

BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK bateragarriak izango dira administrazioek abian jartzen duten beste edozein bonurekin; beraz, tiket berean adierazitako erosketan pilatu ahal izango dira.

Nolanahi ere, ematen den dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza eta gainerako diru-sarrerekin batera, ezin izango du diruz lagundutako erosketaren balioa gainditu.

### Muga

Establezimendu bakoitzeko muga hauek finkatuko dira:

KATEGORIAREN ETA EREMUAREN ARABERAKO MUGAK	Bilbo	Kostaldeko Ardatza	Mendialdeko/Barnealdeko Ardatza	Metropolialdea
<b>A 200 plaza baino gehiago</b>	60.000,00 €	40.000,00 €	- €	40.000,00 €
<b>B 100 eta 200 plaza artean</b>	30.000,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €
<b>C 50 eta 100 plaza artean</b>	20.000,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €	20.000,00 €
<b>D 50 plaza baino gutxiago</b>	10.000,00 €	4.000,00 €	4.000,00 €	4.000,00 €
<b>Turismo-jarduera osagarriak</b>	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
<b>Agentziak</b>	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €

Muga horiek handitu ahal izango dira, baldin eta eskariaren egoerak hala gomendatzen badu, Bilbao Ekintzak ahalik eta bonu gehien banatu ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Programaren Jarraipen Batzordean adostu ondoren.

### Nola egin bonuen likidazioa Bilbao Ekintzarekin.

Onuradunak bonua erosteko unean aukeratzen du establezimendua, eta Bilbao Ekintzak astero ordainduko du erositako bonuen balio faziaren % 50, banku-

transferentzia bidez, emandako kontu korrontearen zenbakian.

Likidatzeko orduan, atxikitako entitateak plataformaren bitartez erregistratu beharko dituzte bonuak eta dagokien salmentaren tiketa edo faktura.

Bilbao Ekintzak, astero, une horretara arte aurkeztutako bonuei dagokien zenbatekoa ordainduko dio establezimenduari. Horretarako, banku-transferentzia bat egingo du emandako kontu zenbakian.

Bilbao Ekintzak, laginketa-tekniken bidez, bonuen aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten frogagiriak egiaztatuko ditu. Horretarako, aipatutako frogagiriak bidaltzeko eskatuko dio atxikitako erakundeari.

## **9. PROGRAMA OSATZEN DUTEN ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

### **Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.**

Kontsumitzaile batek bonuak erosiz gero, dokumentu honetan jasotzen diren kanpainako baldintzak onartuko ditu.

Onuradunek erosten dutenean ordainduko dute bonuaren zenbatekoa, eta atxikitako establezimenduetan nahiz enpresetan trukatu ahal izango dituzte adierazitako muga-eguna baino lehen.

Erabiltzaileak bonuak erostean egindako gastua itzuliko da soilik egoera honetan: zerbitzu edo jarduera hori zerbitzu edo jarduera hori ematen duen enpresa atxikiak (meteorologikoa, segurtasuna, teknikak, etab.) ezinbesteko arrazoiren batengatik eteten duenean.

### **Atxikitako establezimenduen eskubideak eta betebeharrak.**

Establezimendu batek bonuen kanpainarekin bat egiten badu, horrek esan nahi du oinarriak onartu dituela, bai eta oinarrietan ezarritako konpromisoak bere gain hartzen dituela ere. Hori dela eta, Bilbao Ekintzak egiten dituen egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak onartuko ditu, eta horiek egin ahal izateko eskatzen zaion informazio guztia aurkeztuko du.

Atxikitako erakundeek konpromisoa hartzen dute kontsumitzaileei programaren

ezaugarrien berri emateko, bai eta programaren publizitate-materialak establezimenduan erraz ikusteko moduko lekuan hartzeko eta jartzeko ere, eta kendu egin beharko dute deialdi honetan adierazitako establezimendu bakoitzeko bonuen mugara iritsi ondoren.

Establezimenduak bonua onartuko du tiketa ordaintzeko ordezeko gisa, erosketa osorik edo zati batean ordaintzeko, eta une oro errespetatu beharko ditu bezeroari tratatzeko berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak. Hori horrela, programa indarrean dagoen bitartean, ezin izango da bonuaren programa ezkutatu edo bonua erabiltzeko eskubidea ukatu.

Atxikitako entitateek bonuen egiazkotasuna eta baliagarritasuna egiaztatzeko konpromisoa hartuko dute, eta haiek izango dira Bilbao Ekintzan bonua baliogarria izateko beharrezkoak diren zenbatekoen erosketa-tiketa edo -faktura egiaztatzeko eta justifikatzeko arduradunak.

Kontsumitzaileei ez zaie inola ere eskudirutan itzuliko erosketaren zenbatekoaren eta BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUaren balioaren arteko aldea, ez erosteko unean, ez erositakoa geroago itzultzen bada ere.

Saldutako eta trukatu gabeko bonuen zenbatekoa, enpresei aurreratutakoa, erreklamatu da, establezimendua edo enpresa behin betiko ixteagatik edo zerbitzua edo jarduera ezinbestean eteteagatik (arrazoi meteorologikoak, segurtasunekoak, teknikoak...).

Kontsumitzaileak bonua erabili ondoren, establezimendua/enpresa baino ez da izango bonua ondo kudeatzearen arduraduna, eta salmentaren tiket edo faktura egokiarekin batera erregistratu beharko du plataforma elektronikoa baliatuz Bilbao Ekintzan behar bezala likidatzeko.

## **10.- INTERPRETAZIOA**

Bilbao Ekintzak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Programaren Jarraipen Batzordean aldeztatik adostuta, oinarri hauek interpretatzeko eskubidea izango du zalantzak sortzen dituen edozein egoeratan, eta behin betiko erabakiak hartuko ditu.

Alde horretatik, deialdia funtsean aldatzen ez duen punturen bat garatu, aldatu, egokitu edo ezabatu behar bada, Bilbao Ekintza EPELeke Zuzendaritzari emango zaio aldaketa horiek egiteko eskumena, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Programaren Jarraipen Batzordean aldeztatik adostuta. Ondoren, horren berri emango dio administrazio-kontseiluari, aldaketak egin eta deitzen den lehenengo bileran.

## 11. LEGERIA APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa beteko da

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.
- Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako lankidetzahitzarmena, turismoan kontsumoa zuzenean sustatzeko bonuen programa kudeatze aldera.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa, eta gainerako araudi osagarria;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, I. titulua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

**I. eranskina**

**EJZ EPIGRAFEAK**

**“BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK”**

**KONTSUMOA ZUZENEAN SUSTATZEKO BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK IZENEO  
PROGRAMARI ATXIKI AHAL DAITEZKEEN ESTABLEZIMENDU EDO ENPRESEN TIPOLOGIA.**

**1. MOTAKO BONUA: OSTATUETARAKO TURISMO-BONUA**

- Ostatu-establezimenduak (landa-turismoa, turismo-aterpetxeak, apartamentuak, kanpalekuak, landetxeak, karabanetarako eremuak eta hotelak).
  - 681. TALDEA. HOTEL ETA MOTELETAKO OSTATU-ZERBITZUA.
    - CNAE 551 TALDEA/ CNAE 5510 KLASEA
  - 682. TALDEA. HOSTAL ETA OSTATU-ETXEETAKO OSTATU-ZERBITZUA.
    - CNAE 551 TALDEA/ CNAE 5510 KLASEA
  - 683. TALDEA. FONDA ETA MAIZTER-ETXEETAKO OSTATU-ZERBITZUA.
    - CNAE 552 TALDEA/ CNAE 5520 KLASEA
  - 684. TALDEA. HOTEL-APARTAMENDUETAKO OSTATU-ZERBITZUA.
    - CNAE 552 TALDEA/ CNAE 5520 KLASEA
  - 687. TALDEA. GUTXIENKO OSASUNGARRITASUN-ZERBITZUAK EMATEN DIREN TURISMO-KANPAMENDUAK, HALA NOLA EDATEKO URA, KONKETAK, HARRASKAK ETA BESTE BATZUK
    - CNAE 553 TALDEA/ CNAE 5530 KLASEA (Kanpinak eta karabanetarako aparkalekua)
  - Nekazaritza-turismoko establezimenduak. CNAE 5520

## **2. MOTAKO BONUA: TURISMO-INTERESEKO JARDUERETARAKO TURISMO-BONUA**

- Turismo-gidariak
  - CNAE 791 TALDEA/ CNAE 7912 KLASEA
  - CNAE 799 TALDEA/ CNAE 7990 KLASEA
- 882. TALDEA. TURISMO-GIDARIAK
- 883. TALDEA. TURISMO-GIDARI INTERPRETEAK
- Naturan egiten diren kirol-jarduerak eskaintzen dituzten enpresak, hala nola turismo aktiboa eta abentura-turismoa.
  - CNAE 9329

lhes-gelak baztertzen dira.
- Turismo-ibilbideak egiten dituzten garraio-enpresak.
  - CNAE 493 TALDEA/ CNAE 4939 KLASEA
- 855. TALDEA. BESTE GARRAIOBIDE BATZUK ALOKATZEA
- 855.3 epigrafea. Bizikleten alokairua. CNAE 7734
- Aisialdiko eta kiroleko gauzak alokatzea
  - CNAE 7721
- 612. TALDEA. LURREKO IBILGAILUEN GIDARIAK.
- 733.1. epigrafea. Bidaiarien kabotaia eta barruko bide nabigarrietatik garraioa. CNAE 5030
- 733.3. epigrafea. Transbordadoreen, ferry-boat-en eta antzekoen zerbitzuak. CNAE 5030 / 5040\* (Salgaien garraioa barruko bide nabigarrietatik)
- Autoen alokairua
- 854.1. epigrafea. Autoak gidaririk gabe alokatzea. CNAE 7711
- Kultura-, gastronomia- eta natura-ondarea ezagutarazten duten enpresak.
- 966. epigrafea. Liburutegiak, artxihoak, museoak, lorategi botanikoak eta zoologikoak. CNAE 9102 (Epigrafe horretatik, lorategi botanikoak eta zoologikoak eta museo pribatuak baino ez dira onartzen).



- Aisia-zentroak.
- 981. TALDEA. LORATEGIAK, AISIALDIRAKO PARKEAK EDO JOLAS-PARKEAK, URETAKO PARKEAK ETA IRRISTATZEKO PISTAK. CNAE 9321

2. motako bonuaren oharra: enoturismo-esperientziak egiten dituzten upategiak eta interpretazio-zentroak onartzen dira.

### **3. MOTAKO BONUA: BILBAO BIZKAIAN KONTSUMOKO TURISMO-PRODUKTUAK MERKATURATZEKO AGENTZIETARAKO TURISMO-BONUA**

- 755. TALDEA. BIDAIA-AGENTZIAK.
  - CNAE 791 TALDEA/ CNAE 7911 – 7912 KLASEA
  - CNAE 799 TALDEA/ CNAE 7990 KLASEA

**II. eranskina****Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren  
Erregistroa****“BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK”**

KONTSUMOA ZUZENEAN SUSTATZEKO BILBAO BIZKAIA TURISMO-BONUAK  
IZENeko PROGRAMARI ATXIKI AHAL DAITEZKEEN ESTABLEZIMENDU EDO  
ENPRESEN TIPOLOGIA.

**1. MOTAKO BONUA: OSTATUETARAKO TURISMO-BONUA**

- 1. atala. Ostatuak.
  - 6 epigrafea. Landetxeak.
  - 7 epigrafea. Aterpetxeak.

**2. MOTAKO BONUA: TURISMO-INTERESEKO JARDUERETARAKO TURISMO-BONUA**

- Kultur zerbitzuetako enpresak (turismo linguistikoa, esaterako), bai eta kirol-jardueren enpresak ere (turismoa aktiboa eta abenturazkoa, adibidez)

**3. MOTAKO BONUA: BILBAO BIZKAIA TURISMOKO PRODUKTUAK/ZERBITZUAK SALTZEN  
DITUZTEN AGENTZIETARAKO TURISMO-BONUA**

- 3. atala. Bitartekaritzako turismo-enpresak.
  - 1 epigrafea. Bidaia-agentziak.
  - 2 epigrafea. Bitartekaritzako beste zenbait enpresa.